# ASMOZ TA JAKITEZ

80 urte 1918 1998

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

1999 urtarrila/enero/janvier
Nº 86 zenb.

## Piarres Xarriton idazlea, Manuel Lekuona Saria 1999

Piarres Xarritonek jasoko du Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria, 1999. urteari dagokion ekitaldian. Elkartearen Batzorde Iraunkor Osoak aho batez erabaki zuen saria lapurtar idazle emankorrari ematea, bere *opera omnia* kontuan harturik, ez baita xumea egunera arte euskal kulturaren alde Xarritonek egindako lana.

1921eko urrian Hazparnen sortua, Uztaritzen eta Baionan egin zituen ikasketak. Erroman lizentziatu zen Teologian, Parisen, berriz, Filosofian goi mailako titulua eskuratu zuelarik. Bordeleko unibertsitateko euskal ikasketen Departamenduan egin zen doktore, Pierre Broussaini eta euskal ikasketei buruzko tesia aurkeztu ondoren. Pariseko Euskal Etxearen sortzailea dugun eta liburu ugari idatziak dituen ikertzaile hau 1985etik da euskaltzain oso.

Bere azken tituluen artean, Jean Etchepare Mirikuaren eta Piarres Larzabalen Idazlanen inguruko 11 aleak edota Xabier Kintanarekin batera argitaraturiko Hiztegia aipa daitezke.

Eusko Ikaskuntzaren omenaldia jaso dutenen taldea aberastera dator, beraz, orain Piarres Xarriton, sari emate ekitaldia datorren udaberrian burutuko bada ere. Manuel Lekuona beraren ondoren, honako hauek izan dira golardoa eskuratu dutenak: Odón Apraiz, Jorge de Riezu, Andrés de Mañaricúa, Justo Garate, Manuel Laborde, Eugène Goyhenetche, Gerardo López de Guereñu Galarraga, Carlos Santamaría, Bernardo Estornes, Francisco Salinas Quijada, Jean Marie Diharce "Iratzeder", Adrián Celaya, Jorge Oteiza, Micaela Portilla eta José María Jimeno Jurío.

**Biobibliografia**
Eusko Ikaskuntzak, ohikoa denez, sariztatuaren biobibliografia bat plazaratuko du ekitaldi akademikoa burutu aurretik.



## La Junta Permanente aprobó el tema para el XV Congreso de Estudios Vascos

La última Junta Permanente de 1998 se caracterizó por lo apretado de su temario. El orden del día incluía, además de los puntos sobre la concesión del Premio Lekuona 1999 y sobre las elecciones en seis Secciones de la Sociedad, el concerniente al reparto del presupuesto para proyectos de investigación y el relativo al XV Congreso de Estudios Vascos.

Establecida la fecha de su celebración para el año 2001, la Junta dio el visto bueno al asunto de examen propuesto: *"El estado de la cuestión en la ciencia, la cultura y las artes plásticas en los comienzos del siglo XXI y su divulgación a través de las redes telemáticas"*. Eusko Ikaskuntza pretende de esta forma que su próximo gran congreso sirva para revisar la situación en la que se encuentran las diversas disciplinas en las que la Sociedad viene trabajando desde su nacimiento, en 1918. Para ello, se prevé la preparación de una serie de "libros blancos", reflejo de la labor de investigación que debe anteceder a la celebración material del evento, cuya duración no superará así los tres días y que, fundamentalmente, estará dedicado a exponer los resultados de todo ese trabajo previo y a someterlo a discusión entre los asistentes. Se prevé que, para entonces, el material de estudio habrá sido colocado en Internet, facilitando de este modo su conocimiento general. Está por establecer la composición del comité científico del Congreso, en el que estarán también representadas otras instituciones ajenas a la Sociedad pero implicadas en la cuestión, si bien la Junta dio el visto bueno a la formación de un comité organizador que, por acuerdo del máximo órgano rector de EI-SEV, estará presidido por Xabier Alkorta.

EUSKO IKASKUNTZA INTERNET

Web general: **suse00.su.ehu.es**
Euskonews & Media: **www.euskonews.com**

## NOUVEAUX MEMBRES

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.........................Prénom.........................
Adresse.........................Code Postal.........................
Ville.........................Téléphone.........................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE. 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA.

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les membres étudiants.

**Les Sections d'EI-SEV:** anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/ littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/ archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques



## Renforcement des liens avec les municipalités en Iparralde

Nous devons rappeler l'appui considérable qu'ont apporté à Eusko Ikaskuntza les mairies lors de sa création. Il suffit de consulter sur les documents historiques du début du siècle, la liste des mairies comme membres bienfaiteurs. Quatre vingts ans après, la Société d'Etudes Basques entretient des relations privilégiées avec les mairies et notamment avec les municipalités d'Iparralde. Bien sûr si l'on regarde la liste on se rend compte que la dernière convention a été signée avec la mairie de Cambo. Vincent Bru, maire de Cambo et Jean Fagoaga, président pour Iparralde signèrent un accord le 12 décembre avec d'autres personnalités du Labourd qui s'étaient jointes à cette signature. Ce sont les mêmes documents qui ont été signés à Ascain, Bayonne, Barcus, Saint-Jean-de-Luz, Espelette, Hendaye, Sare et Mauléon. Bientôt les responsables des deux entités détermineront leurs projets de collaboration.

**Conférences en Iparralde**
Dans le programme culturel organisé par El-SEB, l'amphithéâtre du Château Neuf de Bayonne accueillera (vendredi 19 février, 20 h 30) la conférence "Carnaval au Pays Basque", par Thierry Truffaut.

## Beca para tareas de catalogación en El-SEV

Eusko Ikaskuntza convoca una beca para la realización de tareas de catalogación en el Archivo y la Biblioteca de la Sociedad en su sede de San Sebastián. La ayuda tendrá una duración de cuatro meses y su importe será de 360.000 pesetas brutas.

Los aspirantes deberán ser licenciados en Geografía e Historia o en Filología. Se requiere dominio acreditado del euskara y experiencia en la catalogación de fondos documentales y bibliográficos. Igualmente, es preciso el conocimiento del sistema operativo windows y tener experiencia en el manejo de bases de datos.

La beca está dirigida a los socios de El-SEV, si bien se admitirán las propuestas de quienes soliciten su ingreso en la Sociedad.

El plazo para la presentación de la documentación finaliza el próximo día 15 de febrero. Los interesados podrán entregar sus respectivos curriculum en cualquiera de las cinco sedes de Eusko Ikaskuntza.

## Otsailaren 28ra arte eska daitezke Zumalabe eta Apraiz Bekak

Eusko Ikaskuntzako bazkideek dagoeneko 1999ko deialdiari dagozkion Apraiz eta Zumalabe bekak eska ditzakete, bi-biak 750.000 pezetaz hornituak. Aurten bietariko lehena, honako sail hauei eskaini zaie: Arte Plastikoak eta Monumentalak; Zinematografia; eta Musika. Agustín Zumalabe bekari dagokionez, ikergaia ondoko disziplinetara mugatu da: Antropologia-Etnografia; Fisika, Kimika eta Matematika Zientziak; Medikuntza Zientziak; Gizarte eta Ekonomia Zientziak; eta Folklorea. Informazio gehiagorako Eusko Ikaskuntzaren edozein egoitzatara jo daiteke.

**Laguntza orokorren banaketa**
Bestalde, Batzorde Iraunkorraren osoko bilkurak aurrekontuaren banaketa onetsi zuen ikerketarako ohizko laguntzei dagokienez, joan den abenduaren 18an eginiko ohizko bileran. Aurten atal horretarako 9.750.000 pezetako gastua aurrikusi da.

Diru kopuru horren zatirik handiena -2.550.000 pezeta- Historia-Geografia Sailera joango da, hori baita proiekturik gehien aurrera eraman behar duena, 22 guztira. Ondoren, ikerketa bolumenari dagokionez, Antropologia-Etnografia Saila dator, horren bazkideek 1.400.000 pezeta jasoko dituztelarik 11 lan burutu ahal izateko. Ondoren, Historiaurrea-Arkeologia alorra agertzen da, 1.350.000 pezetako laguntzekin, 8 ikerlan finantzatzeko.

Halaber, Natur Zientzietako 8 proiektuek diru kopuru garrantzitsua bilduko dute: 1.250.000 pezeta.

## Hautagaiak Hizkuntza-Literatura eta Historiaurrea Sailetarako

Eusko Ikaskuntzako bost Sailetan 1998ko amaieran abiaturiko hauteskunde egutegia aurrera doalarik, urte berriarekin batera beste bi alorrek ekin diote burua berritzeko prozedurari. Izan ere, Hizkuntza eta Literatura eta Historiaurrea-Arkeologia Sailak, Alvaro Arrizabalaga eta Patri Urkizu lehendakari dutenak hurrenez hurren, kandidaturak aurkezteko epean sartu dira, Batzorde Iraunkorraren osoko bilkurak, Iruñean abenduaren 18an egindako ohizko bileran, harturiko erabakiaren ondorioz. Hautagaiak aurkezteko epea zabalik egongo da datorren otsailaren 19 arte. Aipaturiko Batzordeak, halaber, oniritzia eman beharko die kandidaturei Baionan, martxoaren 19an, egitekoa den ekitaldian. Dagoeneko Arte Plastikoak eta Monumentalak Sailak bere lehendakaritza aukeratzeko data finkatu du -urtarrilak 26-, kandidatura bi lehiatzen direlarik: egungo lehendakaria den Montserrat Fornellsena eta Agustín Gómezena. Zuzenbide Sailak, hautagai bakarrarekin, oraingo lehendakaria den José Manuel Castells, otsailaren 1ean burutuko du izendapena. Antropologia Sailak, otsailak 6 egingo du hautatze-bilera, hautagaiak Aitzpea Leizaola eta Juan Antonio Rubio direla. Beste bi Sailek dagozkien bileretara deitu beharra dute oraino: Fisika, Kimika eta Matematika; eta Medikuntza.

## Beka

Laguntzaren helburua Barandiaran Fundazioaren berezko lanetan aritzea da, ondoko oinarri hauen arabera:

**Hautagaiak**
Kontutan hartuko dira:
- Entrepresa edo Ekonomia Zientzietan goi-titulatua izatea.
- Informatikaren inguruko ezagupidetza.
- Hizkuntzak: euskara, gaztelera; frantsesa edota ingelera.
- Euskal gaietarako zaletasuna.

**Iraupena eta zenbatekoa**
Lanaren iraupena sei hilabetekoa izango da, beste horrenbeste aldirako luzatu ahal izango delarik. Bekadunak 600.000 pezetako dirulaguntza gordina jasoko du.

**Dokumentazioa**
Interesatuek beren eskaera-eskutitzak, curriculumarekin batera, Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotara bidali beharko dituzte 1999ko otsailaren 15a baino lehen.

## Les meilleurs experts lors des journées sur le régionalisme

Eusko Ikaskuntza a réuni des experts remarquables provenant de diverses universités et d'administrations publiques lors des Journées sur le Régionalisme et l'intégration Européenne, célébrées les 14 et 15 décembre au Palais Miramar de Saint-Sébastien. La rencontre servit de cadre pour la présentation du groupe créé récemment *"Europe-Euskal Herria"* sur le Régionalisme et Droit de l'UE. Le programme s'est structuré en 3 sessions de travail, auxquelles précédèrent deux sessions inaugurales de Luis M. Díez (Escuela Judicial) et de J. Renyer (Université Rovira i Virgili de Tarragona). La première fut consacrée à l'analyse du phénomène régionaliste. Puis suivit une autre spécialement sur les relations entre les différentes régions et l'UE ; la troisième partie fut intitulée "L'articulation des relations entre la Région, l'Etat et l'Union Européenne".






## Diputazioek beren babesa berretsi zioten Elkarteari 80. urtemugan

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek eta Nafarroako Gobernuak era sinbolikoan berritu zuten mende hasieran harturiko konpromisoa, orduan Eusko Ikaskuntza abiarazten lagundu baitzuten osoko erabakien bidez. Horren kariaz, erakunde sortzaileek eta Elkartearen Batzorde Eragileko kideek ohizkanpoko bilera egin zuten joan den abenduaren 22an Gipuzkoako Aldundiko Kontseilu Aretoan.

### Etengabeko leialtasuna

Román Sudupe Gipuzkoako ahaldun nagusiaz gain, bilkura horretan zeuden Félix Ormazabal Arabako ahaldun nagusia, Tomás Uribeetxeberria Bizkaiko Kultura ahalduna eta Tomás Yerro Nafarroako Gobernuko Kultura zuzendari nagusia. Azken honek Eusko Ikaskuntzaren haserako izpirituarekiko "etengabeko leialtasuna" oroitarazten bat egin zuen bertan zeudenen iritziekin eta "ezin bikainagotzat" jo zuen Elkarteak bere laurogei urteko bizitzan buruturiko ibilbidea, besteak beste, arrazoi hauengatik: Euskal Herriaren errealitate konplexuaren ezagutzapenari eta zientzia-komunitatearen artikulazioari egindako ekarpenak, bai eta euskal kulturaren nazioarteko proiekzioari ekarritako laguntza.





## Plaza de profesor visitante en Oxford

**1.-** Podrá participar en la convocatoria cualquier miembro de la comunidad científica -o con estrecha relación con la misma- de Vasconia (Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra e Iparralde). No se requiere la condición previa de miembro de EI/SEV.

**2.-** Líneas de trabajo preferentes:

a) Sociedades y culturas étnicas en contextos multiculturales y transfronterizos.
b) Bases económicas y culturales en las sociedades europeas durante la Prehistoria e Historia Antigua.
c) Estrategias de regeneración urbana en áreas de de tradición industrial en Vasconia y Europa.
d) Institucionalización política y jurídica.
e) La regeneración de la diversidad en el medio ambiente de Vasconia y Europa.
f) Asambleas representativas y parlamentarias en la historia de Vasconia y de Europa.
g) Género biográfico y prosopografía.

No obstante, cualquier especialista podrá participar en la convocatoria, en cuya resolución se tendrá en cuenta a los candidatos que ofrezcan un proyecto de trabajo de más interés.

**3.-** El tiempo de estancia en la Universidad de Oxford comprenderá los periodos de Michaelmas Term (12/10 a 12/12-1999), Hillary Term (18/1 a 15/3-2000) y Trinity Term (26/4 a 21/6-2000).

**4.-** La retribución será de 400.000 ptas. mensuales.

**5.-** Los candidatos deberán recoger los impresos de solicitud en las Oficinas de EI/SEV.

**6.-** El plazo para la presentación de la solicitud y la Memoria, que deberán ser redactados en inglés, finaliza el 1 de marzo de 1999.

## Eusko Ikaskuntza gestionará trabajos documentales en Cuba

Eusko Ikaskuntza se encargará de gestionar la ayuda que la concejalía de Juventud, Cooperación y Tolerancia del Ayuntamiento de San Sebastián ha concedido para la recuperación del patrimonio documental de la *Asociación Vasco Navarra de Beneficencia de La Habana*. Creada en la segunda mitad del siglo XIX, esta sociedad tiene en su haber documentación de interés para estudiosos de la historia y otros investigadores, si bien precisa de un tratamiento que la haga accesible y que asegure su conservación. La ayuda municipal, de 800.000 pesetas, se destinará al inventariado, a la catalogación y a la posterior puesta en uso de los fondos existentes.

## Video en Internet

Desde su incorporación a Internet, en 1996, Eusko Ikaskuntza ha ido incrementando y enriqueciendo su aportación a la red. A la documentación de todo tipo disponible en sus páginas web, se suma ahora, como novedad audiovisual, el video editado con motivo del 80 aniversario de la Sociedad, al que puede accederse desde cualquier parte del mundo a través de la dirección de EI-SEV: **http://suse00.su.ehu.es**
**http://ei-sev.su.ehu.es**

Semanalmente EI-SEV renueva los contenidos de su revista *Euskonews & Media*: **http://www.euskonews.com** La semana del 22 al 29 de enero, la publicación incluirá una entrevista con el dealer de arte en Estados Unidos José Mari Tasandee y el primer número de febrero, con el fotógrafo Alberto Schommer. Habrá también artículos de varios autores, además de las habituales secciones dedicadas a medios, opiniones culturales, hemeroteca, fotografías antiguas, tertulias radiofónicas, etc. A partir del 5 de febrero, podrá consultarse un monográfico sobre el carnaval.

80 urte 1918 1998

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

# Era digital y transmisión del conocimiento



**Javier Díaz Noci**

*Basque Visiting Fellow dugu aurten Oxfordeko Unibertsitatean.*

Casi milenaria, a pesar de las sucesivas reformas que sobre ella se han operado, de las críticas que cada día levanta, de las reticencias o la indiferencia que provoca en amplios sectores de la población, de las acusaciones de elitismo, de exclusivismo y de alejamiento de la realidad, la universidad es una de las instituciones sociales que más ha durado y menos ha cambiado en Occidente desde su lejana y oscura fundación, allá a mediados del siglo XII. Probablemente no haya universidad en que el espíritu medieval y, a la vez, la urgencia de hacer frente a los nuevos retos de la sociedad, se haga más patente que en Oxford.

Si se pregunta sobre la función de la Universidad -aunque no sea ésta la única institución que se dedique a ello; digamos entonces, en un sentido más general, la Academia- de forma unánime, todo el mundo dirá que es irradiar conocimiento sobre la sociedad y hacerlo de la única forma posible: con rigor científico. Y, si se quiere añadir, empleando términos algo más modernos, con eficacia. El qué es entonces fundamental, el cómo, accesorio. Pero no menos importante.

Las nuevas tecnologías -cada vez, por cierto, menos nuevas- permiten acercar el conocimiento científico o académico de una forma más universal, romper algunas barreras. Las más difíciles de superar en otros tiempos, las barreras del espacio: ya no hace falta desplazarse para acceder al conocimiento, porque puede hacerse uno con él a través de la pantalla de un ordenador. Las publicaciones académicas, cada vez más virtuales y menos físicas, las bibliotecas y hemerotecas digitales, que permiten consultar ejemplares (o mejor, facsímiles de ejemplares, pero menos da una piedra y muchas veces, por seguir con los refranes, más vale pájaro en mano que ciento volando) sin desplazarse

> *Probablemente no haya universidad en que el espíritu medieval y, a la vez, la urgencia de hacer frente a los nuevos retos sociales se haga más patente que en Oxford*

al lugar donde se almacenan, los foros telemáticos, e incluso la enseñanza a distancia por ordenador, van, si no a sustituir, sí por lo menos a ser un importante complemento de lo que es la enseñanza universitaria hoy en día. Un campo no exento de problemas: los derechos de autor sobre las obras digitales, la necesidad de almacenar de algún modo, de fijar para siempre y conservar lo que es por esencia fútil, los cambios que en el propio conocimiento va a comportar -está comportando ya- el advenimiento del mundo digital son temas sobre los que urge investigar.

Éste es el propósito fundamental de mi estancia de un curso académico en la Universidad de Oxford. Investigar y contrastar cuál es el sistema de enseñanza con certeza más cercano al espíritu primigenio de la universidad, un lugar con ochocientos años de tradición académica, cuya biblioteca, la gigantesca Bodleiana, fue la primera en sustituir los arcones por las estanterías. Una red de conocimiento que, como todo el mundo -al menos el occidental- se enfrenta a nuevas necesidades, a nuevas características de la sociedad, y comparar todo ese sistema con lo que nosotros, más jóvenes, estamos haciendo. La organización de un seminario sobre la materia, en el que especialistas oxonienses y vascos pongan en común sus hallazgos, sus dudas y sus proyectos es la actividad que, para los dos próximos trimestres, me planteo como objetivo.

## EI-ko kideen liburuak

**"Zumaia. Historia". Lourdes Odriozola Oyarbide.**

Argi agertzen zaigu liburuaren helburu nagusia: hiribilduaren jatorritik hasi eta gaur egunera arte Zumaiaren historiari eta bilakaerari buruzko ikuspegi orokorra ematea, 650 urtetako errepasoa eginez. Hala ere, ez du lana bukatutzat eman nahi egileak. Beste ikerketa batzuetarako lehen urratsa izatea nahiko luke, beharrezkoa baita, bere ustez, irakurleek Zumaiako eta Gipuzkoa osoko historiari buruzko ahalik eta ikuspunturik anitzenak jasotzea (Ed.Zumaiako Udala).



**"Beasaini buruzko monografia etnografikoa". José Zufiaurre Goya.**
Lana On Jose Migel Barandiaranen *Galdeketa etnografiko baterako gidaliburua* Beasaini egokitzearen ondorioa da. Horretarako ehundaka ordu egin ditu egileak baserri askotako sukaldeetan solasean, 1978 eta 1998 urteen arteko bi hamarkadetan. Gure gizarteak duen bilakaera azkarra ikusirik, berrogeita hamar urte barru herriari buruzko beste monografia etnografiko bat egin beharko da gertaturiko kultura aldaketak ikusteko. Baten batek lan horri ekitea espero du Zufiaurrek (Ed. Beasaingo Udala).



SAILAK

## Ikasle ugari EI-ren Fisika, Kimika eta Matematika Sailaren IV. Jardunaldietan

Bizkaiko Foru Artxibategiko areto nagusiak hartu zituen Eusko Ikaskuntzaren Fisika, Kimika eta Matematika Sailak antolaturiko IV. Jardunaldiak. Aurreko edizioetan bezala, gazte ugari erakarri zituen pasa den abenduaren 3 eta 4eko arratsaldeetan buruturiko egitarauak, ikasle gisa izena eman zutenen kopurua laurogei ta hamarretik gorakoa izan zelarik.



**Adituak**

Jardunaldiek, bestalde, erakunde ezberdinetatik etorritako hainbat goi mailako aditu biltarazi zituzten, Londoneko Imperial College, Consejo Superior de Investigaciones Científicas edo Centro de Investigaciones Biológicas delakoen ikerlariak, kasu, bai eta unibertsitateetako zientzilariak (Madrileko Universidad Autónoma). Egun bakoitzeko hitzaldien ondoren, eztabaidari ekin zioten esku hartzaileek.

Félix Goñi Eusko Jaurlaritzaren Zientzia Politikarako zuzendariari egokitu zitzaion saioen itxiera ekitaldia.

### Liburuak-Libros

*"EI-ko kideen liburuak"* atalak Elkartearen Sailetako kideek Eusko Ikaskuntzatik kanpo argitaraturiko lanen berri ematen du hilabetero. Beraz, egile edo argitaletxe bakoitzarekin jarri beharra dute harremanetan aleak eskuratzeko edo haien inguruko informazioa jasotzeko interesa dutenek.

*La sección "EI-ko kideen liburuak" da cuenta de los trabajos publicados en otras editoriales por miembros de las Secciones de EI-SEV. Los interesados en adquirir u obtener más información sobre estas publicaciones deberán, por tanto, ponerse en contacto con los respectivos autores o firmas editoras.*

**ASMOZ TA JAKITEZ**

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. E-mail: idoia@encomix.es Ordut.: 8.00-14.00/ 16.00-18.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. E-mail: rosa@encomix.es Ordut.: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. E-mail: marta@encomix.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. E-mail: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr Ordutegia: 9.00-12.00/ 14.00-19.00.